

Berako Aralar

2. zk.
2004ko udazkena
Argitaratzailea:
Berako Aralar
76 posta kutxa
31780 BERA
bera@aralar.net
www.aralar.net

Urte bat lanean

Urte bat. Joan den urteko urriaren udal hautes-kundeetan jasotako 472 botuekin hiru zinegotzi lortu zituen **Aralarrek** Berako Udalean: Jon Abril, Marisol Taberna eta Iker Igoa. Hiru zinegotzi horiei esker EAren legegintzaldi osorako gobernu akordioa sinatu zen, eta ondorioz, alkateordezta eta hainbat batzordeko burutza hartu zituen.

Lehenbiziko urtea lan anitzeko eta gogorra izan da, talde bezala eratzea, Herriko Etxearen barne funtzionamendua ikastea, eta batzorde berri ugari martxan paratzea izan ditu Berako **Aralarrek** zeregin nagusi. Baina ilusio handiz, eta lanerako gogoz ekin zion zeregin berriei. Lehenbiziko urtearen balantzea ona da, oro har, baina lana ausarki dago egiteko oraindik ere. Urte honetan **Aralarrek** egindako lana, eta hurrengo ikasturterako erronak bildu dira orriotan.

EAren lorturiko gobernu akordioan batzordeen funtzionamendu irekia, herritarrei zabaldua eta herritarren parte hartzeari garrantzia

ematea jarri genituen baldintza bezala. Urteko plangintza eta aurrekontuetan euskara, kultura, kirola eta gizarte gaietako arloei indar berezia ematea eskatu genuen, eta gestioaren gardentasuna esijitu. Hirigintzan, bereziki, ordura arteko joera eta lanmoldeak bantzertu, eta arduraz jokatzeko konpromezua agertu genuen. Komunikazio arloa zaintza, udalaren funtzionamenduan eragitea eta udala modernizatzea ere izan ziren akordioak bildu zituenetakoak. Era berean, pertsona guzien eskubide

indibidual zein kolektiboen defentsan aritzeko konpromezua hartu genuen, eta bide horretan, legez kanpo utzitako Berainezkin harremantzen eta giza eskubide guzien defentsan dihardugu.

Aralarrek batzorde guzietan parte hartzen du, dinamika eta ekarpen handiz. Halaber, hainbat erakundetan ere ordezkaritzaz dugu. **Aralarren** zerrendan joandako kideek ere udal batzordetan parte hartzen dute. Zu ere gonbidatuta zaude gurekin parte hartzera. Ø

Aralarreko zinegotziak eta euren ardurak:

Jon Abril


alkateordea; gobernu batzordea; hirigintza-herri-lanak (burua); kultura-bestak (burua); kirola; pertsonala; bozeramalea; san jose zahar etxea.

Marisol Taberna

gizarte gaiak; euskara; ogasuna; mendiak-inguru-giroa; oinarrizko gizarte zerbitzuak mankomunitatea; musika eskola; haurzaindegia.

Iker Igoa

euskara (burua); nekazaritza-merkataritza-industria-turismoa; bertizko partzuergoa; euskara mankomunitatea; ricardo baroja eskola.



Un año de trabajo

Un año. Los 472 votos obtenidos en las elecciones municipales de octubre del 2003 dieron a **Aralar** 3 concejales en el Ayuntamiento de Bera: Jon Abril, Marisol Taberna e Iker Igoa. Estos 3 concejales permitieron un acuerdo de Gobierno con EA por el que **Aralar** obtuvo la primera tenencia de alcaldía y la presidencia en varias comisiones. Los concejales de **Aralar** participamos en todas las comisiones, así como los miembros que formaron la lista. Ha sido un año de mucho trabajo y esfuerzo para **Aralar**, un año duro. Durante este tiempo **Aralar** se ha ocupado de formar el grupo,

de aprender el funcionamiento del Ayuntamiento y de poner en marcha varias comisiones, todo esto con mucha ilusión, tenacidad, y ganas de trabajar. Sabemos que queda mucho por hacer, pero el balance del primer año, con sus más y sus menos, es positivo. En estas páginas resumimos algunos de los temas abordados de mayor relevancia y aquellos que quedan pendientes para el presente curso. Entre las condiciones que exigimos para llegar a un acuerdo con EA se encontraban las de garantizar la participación ciudadana a través de comisiones abiertas y el hacer especial hin-

capié en las áreas de euskara, cultura, deporte y asuntos sociales. También exigimos transparencia en la gestión y nos comprometimos a modificar la forma de trabajo en el área de urbanismo. Así mismo se citan el área de comunicación, y la modernización y mejora del funcionamiento del ayuntamiento. En cuanto a la defensa de los derechos individuales y colectivos de todas las personas, venimos manteniendo relaciones con la plataforma ilegalizada Berainez. Trabajamos y trabajaremos por la defensa de todos los derechos humanos.